

Komisioen tarifak, baldintzak eta bezeroei jasanaraz daitezkeen gastuak

2016.11.11tik indarrean

51. EPIGRAFEA AURREABALAK, ABALAK ETA BESTE BERME BATZUK (ATZERRIKOEN GAINEAN)

ERAGIKETA KLASEA	Ikasketa gastuengatik (Behin) (Ikus 10. oharra)		Formalizazioagatik (Behin)		Arriskuagatik (Hiruhilekoa) (Adierazgarria)	
	%	MINIMOA Euroak	%	MINIMOA Euroak	%	MINIMOA Euroak
1. EMANDAKOAK.						
1.1 Aurreabalak	5,00	150,25	10,00	150,25	20,00	75,13
1.2 Abal teknikoak	5,00	150,25	10,00	150,25	20,00	75,13
1.3 Abal finantzarioak:						
1.3.1 Urtebete arte	5,00	150,25	10,00	150,25	20,00	75,13
1.3.2. Urtebete baino gehiago	5,00	150,25	10,00	150,25	20,00	75,13
1.4 Erabilgarritasun komisioa 1.5 Aldaketak (Ikus 9. oharra)	----		----	60,10 (a)	5,00 (Ikus 8. oharra)	
2. JASOTAKOAK.						
2.1 Igorpena edo abisua konpromisoarekin	----		1,00	48,08	3,00	60,10
2.2 Jakinarazpena edo abisua (konpromisorik gabe)	----			30,05 (a)	----	
2.3 Aldaketak (Ikus 9. oharra)	----		----	75,00 (a)	----	
2.4 Abala egikaritzeko dokumentuen kudeaketa (Ikus 11. oharra)	----		2,00	60,00	----	
(a) Zenbatekoa behin ordaintzekoa da, ez da gutxienekoa.						

- 1. OHARRA** Ulertuko da Epigrafe honetan sartzzen dela bezeroak hirugarren baten aurrean bere gain hartutako betebeharren edo konpromisoen betetzea ziurtatzeko ematen diren mota guztietako kauzio, berme eta fidantzak.
- 2. OHARRA** Aurreabalak negozio juridiko batzuk dira, zeinaren bidez bankuak hitzematen duen behin betiko abala emango diola eskatzen duen pertsona edo erakundeari, bermearen onuradunaren arabera, betiere, konpromiso horretako baldintzak betetzen badira, ez baitago bankuaren borondatearen menpe.
- 3. OHARRA** Izaera teknikoko abalak dira Banku abal-emaileari ordaintzeko obligazio zuzena ematen ez dien baina abaldunak bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez dituenen erantzuten dutenak.
- 4. OHARRA** Abal ekonomikoak: merkataritzakoak edo finantzazkoak izan daitezke. Lehenak izaera komertzialeko eragiketei dagozkie eta edozein motako ondasunen salerosketan, ordainketa-zatikapenean, aurrez emandako zenbatekoetan eta abarretan ordainketa atzeratuari erantzuten diote.

Bigarrenek, ostera, bezero abaldunak beste entitate batzuetan lortutako kreditu edo maileguei erantzuten diete eta Banku abal-emailea behartuta dago horiek itzultzera; oro har, finantza-letren edo kreditu nahiz maileguz polizen abalak izaten dira.
- 5. OHARRA** Arriskuagatiko komisioa hiru hilero eta aurrez kobratuko da. Komisioaren sortzapena abalaren edo bermearen iraungitzearekin amaituko da, edo haren baliogabetzearekin, modu fede-emailean eta Banku abal-emailearen gogobetetzearekin burututa, edota, hala balegokio, hartzekodun berme-emailearen erreklamazio eskubidea iraungitzen edo preskribatzen denean.
- 6. OHARRA** Atzerriko erakunde baten aurrean emandako bermeen kasuan, baldin eta Espainiako banku bermatzaileak, aldi berean, Espainian banku-kontrabermea eskatu badu, eragiketa desberdintzat hartuko dira atzerritarren aurreko bermea eta berme hori babes dezakeen kontrabermea, eta horietako bakoitzak bere komisioak sortuko ditu.
- 7. OHARRA** Eragiketa horiek gauzatuko balira, 53. Epigrafean (Transferentziak, Ordainketa Agindu Arruntak, Txekeak eta Travellers Txekeak) edo 52. Epigrafean (ordainketa agindua dokumentuaren aurka egin behar balitz) ezarritako komisioak jasoko dira.
- 8. OHARRA** Erabili ez den batez besteko arriskuaren gainean kobratuko da. Abalaren erabilera bezeroarentzat aukerakoa den eragiketetan bakarrik aplikatu ahalko da, hau da, abal lerro bat denean.
- 9. OHARRA** Aldaketagatiko komisioa horren zenbatekoa gehitzeagatik edo eragiketaren epea luzatzeagatik sor daitezkeen komisio gehigarrien kobraketa alde batera utzita aplikatuko da. Komisio hori aldaketa bakoitzeko kobratuko da.
- 10. OHARRA** Ez da komisiorik jasoko abalen azterketagatik aurretik ere aurreabalak eman izan badira eragiketa horiengatik eta kobratu izan bazaie zegokien komisioa.
- 11. OHARRA** Bermearen onuradunak eragiketa gauzatzekoan aurkeztutako agirien kudeaketa, dokumentuen aurka egikaritu behar den kasuetan.
- 12. OHARRA** Posta gastu gisa jasoko dira bidalketa bakoitzeko frankeoak sortzen dituenak, eta bezeroari jasanaraziko dira korrespontsalaren komisioak, halakorik balego.
- 13. OHARRA** Erreklamazio-gastuen kontzeptupean, zenbatekoa ordaindu izan denean edo eragiketaren arabera hala dago-kionean, 30,00 euroko komisio finko bat kobratuko da, behin bakarrik eta izenpe bakoitzeko (mugaeguneratutako zordun-posizio berria) eta, betiere, erreklamazioa benetan gauzatu izan bada.